

2021/03/01

LANUZTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

LAUDIO IKASTOLAKO LANGILEEK BAT EGIN DUTE MARTXOAREN 5ERAKO DEITUTAKO LANUZTEAREKIN

Gehiengo sindikalak, ELA, LAB, ESK eta STEILAS sindikatuek, lanuztea deitu du Aiaraldean martxoaren 5erako “Enplegu eta bizitza duinarean alde” eta Laudio Ikastolako langileek deialdiarekin bat egitearen alde bozkatu dute.

Hortaz, datorren ostiralean, hilak 5, 11:00etatik 13:00etara, Ikastolako ohiko funtzionamendua eten egingo da eta ikasleen zaintza bermatzeko prozedura ezarriko da.

Haur Hezkuntza etapan ez da funtzionamendu moldaketarik egingo. Burbuila bakoitzak bere egunerokoa mantenduko du, jantokia barne.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan burbuilen zaintzarako prozedura eratuko da.

Lehen Hezkuntzako jantoki zerbitzuan asteazkenetako ordutegia izango dugu eta etapa honetan etxera doazen ikasleak 11etan jasotzeko aukera eskainiko da. Horretarako, tutoreari



**Aiaraldean
Enplegu eta Bizitza
duinak!**

Lanuzteak
11:00etatik 13:00etara

MARTXOAK 5

Mobilizazioak 11:30etan

Laudioko Herriko Plaza
Amurrioko Juan de Urrutia Plaza



jakinarazi beharko zaio ikaslea 11etan jasotzeko asmoa.

Moldaketa guzti hauen xedea, Ikastolako ahalik eta langile gehien herrian deituta dagoen mobilizapenean parte hartzeko aukera izatea izango da.